

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua **adin ezberdineko** ikasleei zuzendua dago, hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta batxillergoa ikasten ari diren ikasleei, izan ere gure proiektuaren xedea ikasleen ikasketa beharrak asetzea baita horretarako behar duten informazioa eta apunteak eskainiz. Hala ere, **beste bezero mota** batzuk aplikazioa erabiltzeko interesa izan dezakete eskaintzen ditugun baliabideengatik. Hala nola, irakasleak, haien klaseko informazio-iturriak handitzeko edota klaseak baliabide ezberdinak erabiliz emateko aukera aurkituko baitute: bideoak, abestiak eta abar. Gainera, ez du zertan izan behar soilik hezkuntzarekin erlazionatzen diren pertsonak interesatu bakarrak. Beren ezagutzak handitu nahi dituzten pertsonak ere gure aplikazioa instalatu dezakete eta guk eskaintzen dizkiegun materialetatik ikasi dezakete.

Bezero segmentazioari dagokionean, gure enpresa segmentatutako merkatua da, produktu berdina edo lotura duten produktuak bezero ezberdinei eskaintzen diegulako; hau da, ikasketa mailaren arabera segmentatutako bezeroak.

